

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresaren bitartez, bigarren hezkuntzako ikasle eta irakasleen arteko desadostasunak konpontzen ahalegintzen gara, irakaskuntzan dauden arazoak hobetzeko, klase antolaketan eta ordutegiak dauden arazoetan zentratuz.

Guk bezala horrelako ideiak aurrera eramaten dituzten enpresa oso gutxi daude, eta uste dugu irakasleak eta ikasleak ados egongo direla gure proiektuarekin eta haien interesgarria izango litzatekeela irakaskuntza, klaseen antolaketa eta ordutegian dauden arazoak konpontzen dituen enpresa batek haiek laguntzea. Hori bereizten gaitu gure lehiakideengan, irakasleen eta ikasleen arteko elkarlaguntza sustatzen dugula, denon mesederako, irakaskuntza hobetu ahal izateko eta denak konforme egoteko. Hori lortu ahal izateko, gure enpresak aplikazio bat erabiltzen du irakasleekin eta ikasleekin kontaktuan egoteko, eta horrela ikasleek dituzten arazoak ikusten ditugu eta irakasleei aholkuak ematen diegu haiek zalantzak dituztenean. Gainera, beraiekin bilerak egin ditzakegu dituzten zalantzak argitzeko eta laguntzeko. Gure zerbitzua eskuragarritasun handia dauka, irakaskuntza hobetu ahal izateko beste metodoak izan daitezkeenaren eskuragarriagoak. Aplikazioa deskargatzea guztiz doan da eta horrek jendeak hura erabiltzeko aukera handitzen du.

Gure produktuari balioa ematen diona ikasleek irakaskuntzaren inguruko ikuspuntua ematea hobetu ahal izateko eta aldi berean irakasleengan eragitea beraientzat klase egokiak eman ditzaten. Horrela irakaskuntza-sistema hobetu daiteke ikasleak eta irakasleak elkarlanean arituz, eta ez bakarrik irakasleek bere kabuz.